



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko maiatzaren 16an

52 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboei buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako zuzenketak ([2. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako Administrazio Publikoen Montepioetako Funtzionarioen Eskubide Pasiboei Buruzko Foru Lege proiektua

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritako betez, Nafarroako Administrazio Publikoen Montepioetako Funtzionarioen Eskubide Pasiboei Buruzko Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2000ko urriaren 11ko 81. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak Nafarroako Administrazio Publikoetako Montepioetako Funtzionarioen Pasiboei Buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa, Nafarroako Gobernuari itzul dakion.

I. Gobernuak aurkeztutako Eskubide pasiboei buruzko Lege proiektuak autogobernua atzera egitea eta Nafarroako zuzenbide historikoekiko utzikeria da.

LORAFNaren 49.1.b) artikulua Nafarroari aitortzen dio erabateko eskumena, "bere foru araubidearen kariak", gai honen inguruan: "Foru Komunitateko Funtzionario Publikoen Estatutu Araubidea, Estatuko oinarriko legeriak Funtzionario Publikoei onartzen dizkien funtsezko eskubide eta betebeharrak errespetatuz."

Aipatutakoa eskumen historikoa da, Nafarroako erakundeen eskuetan egon izan diren eskubide historikoetako bat, eta halaxe zela onartu zuen

Konstituzio Auzitegiak 1990eko irailaren 20an emaniko epaian: "...egiazko egitate horrek, alegia, Nafarroak bere eskubide historikoen kariak eskumenak bete dituela funtzio publikoaren antolamenduaren arloan eta, zehazkiago, bere funtzionarioen estatutu araubidearen arloan, bide ematen du eskumenen eremu horretan sartzeko unean-unean funtzionarioen estatutu araubidetzat hartu daitekeena."

erabateko eskumen horri esker, Foru Komunitateak foru funtzionario guztien klase pasiboen arloan bere politika bideratu dezake trazarik gabe, eta legegintzako ahalmenaz subiranotasunez baliatu, muga bakarra "Estatuaren oinarriko legeriak funtzionario publikoei ezagutzen dizkien funtsezko eskubide eta beharkizunetikiko begirunea" duela.

Foru Komunitateko Administrazioaren Funtzionarioen Eskubide Pasiboen Araubide Indardunaren Oinarria Foru Diputazioak Erretiroen eta Pentsioen Erregelamendua onesteko 1931ko martxoaren 10ean hartu zuen erabakian. Haren ondotik, erabaki eta xedapen anitz eman izan dira gai hau arautzeko. Horien artean nabarmentzekoa da 1973ko uztailaren 14an langileen oinarriari buruz hartutako erabakia, antzinatearen sistemara ekarri zuen aldaketagatik, metatu beharreko bost urtekoaren ordeztu metatu beharrik gabekoa ezarri baitzuen, eta aipatu urteko uztailaren 1etik aurrera ondorioak izan zituen.

Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutua arautzen duen martxoaren 30eko 13/1983 Foru Legeak funtzio publikorako eredu integral bat ezarri zuen, maila eta ordainsarien arabera sailkapen eredu berri batekin. Haren 1, 2 eta 3. xedapen iragankorrek xedatu zuten arau zaharrak indarra izaten segituko zuela eskubide pasiboen erregelamendu berria argitaratu bitarte, 1. xedapen gehigarriarekin bat. Xedapen horiek, funtsean, beren horretan mantendu

ziren estatutuaren testuategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1994 Legegintzako Foru Dekretuan. Nolanahi ere, 4. xedapen gehigarrian xedatu zen Nafarroako Gobernuak foru eta toki administrazioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubideari buruzko foru lege proiektu bat igorri beharko zuela Nafarroako Parlamentura.

Nafarroako 1992 eta 1994ko aurrekontuen legeez geroztik foru administrazioko funtzionario berri guztiak Gizarte Segurantzaren araubideari atxikitzea erantsi zen. Horren ondorioz, foru montepioak hondar-sistema gisa gelditzen dira eta haiei atxikiriko funtzionarioak, berriz, "iraungi beharreko egoeran". Planteamendu horri jarraikiz, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 9. xedapen gehigarriak Gobernuari eginkizun hau luzatu zion: udal-tako montepioen sistema Gizarte Segurantzaren sisteman sartzen lortzeko beharrezkoak diren jarduketak eta kudeaketa lanak betetzea. Antzeko iritzia adierazi zuen Nafarroako Parlamentuak, Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartzearen inguruan, 1999ko azaroko erabakian "MUNPAL delakoari atxikitako toki administrazioko funtzionarioak sartu ziren modu eta baldintza berdinetan, gutxienez."

Foru lege proiektua funtzionario talde guztiak Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean osoki sartzeko prozesutik aldentzen da, montepio berekiak iraungi beharreko egoera gisa mantentzen dituelako, orain arte gertatu den bezala. Halere, sistema harekin bat egiten du, bere prestazioen ezaugarriak Gizarte Segurantzaren sistemarentan oinarritzen baititu, prestazioak zehazteari, kalkuluei eta gutxieneko eta gehieneko pentsioei dagokienez. Kontuen Ganbarak emandako txostenean ere halaxe ageri da: "foru lege proiektuak taxuturiko pasiboaren sistemak lotura zuzena du Gizarte Segurantzaren araubide orokorraren gidareroekin, Nafarroako montepioen eskubide pasiboaren lehengo sistematik heldu diren berezitasun batzuk gehituta" (9. or.)

Montepioen araubidearen munta txikiko zenbait alderdiri eusteak, hala nola borondatezko erretiroei, ez du aldatzen langileen gaineko politikaren kudeaketan arautze eta zuzentze ahalmenaren galera, funtzio publikoaren zati baten, hau da, pasiboaren araubidearen gaineko erabakiak eta kudeaketa Foru Komunitateetik kanpokoak ez diren eremuetan hartu eta eginen baitira (18, 27 eta 28. orr.). Horren ondorioa da, hortaz, pasiboari buruzko foru lege batek, Gobernuak proposatzen duen moduan, Nafarroako montepioetako funtzionario guztiak "iraungi beharreko langile-talde" gisa hartzean, Foru Komunitateak foru eskumen historiko

bat galtzea eragiten duela –saldukeria, utzikeria edo abandonoa dela medio–. Eskumen hori foru funtzionarioen klase pasiboaren estatutu araubidea da. Foru Komunitateko erakundeak dira jatorrizko eskubide historikoak babestu eta errespetatu behar dituzten lehenak, LORAFNaren 2.1 artikuluari jarraikiz: "Botere publikoek Nafarroako Foru Komunitatearen jatorrizko eskubide historikoak errespetatu eta babestuko dituzte, 1839ko urriaren 25eko Legeari, 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduari eta xedapen osagarriari, lege organiko honi eta Konstituzioari jarraikiz, haren lehen xedapen gehigarriko lehenbiziko lerroaldean aurreikusitakoaren ariora."

Nafarroako Parlamentuak Pasiboari buruzko lege proiektua onartzen badu Gobernuak proposatzen duen bezala, Foru Komunitatearen eskumenak, bere funtzionarioen klase pasiboaren araubideari dagokionez, LORAFNaren 54. artikulua aurreikusten diren apurrak izanen lirateke, gehienez ere; hau da, Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeatzaile hutsa izanen litzateke, ez besterik, estatuak horren eskumen osoa duela ahaztu gabe, eta arlo horretako estatuko oinarritzko legeria garatu eta betearaztera mugatu beharko luke (Espainiako Konstituzioaren 149.1 17 artikulua).

Aipatutako testuak ikusirik atera daitekeen ondorioa da pasiboari buruzko foru legea Gobernuak proposatu duen bezala onartzeak Nafarroak bere funtzionarioen klase pasiboaren arloan duen berezko eskumena ez lukeela ziurtatuko inondik ere eta horrez gain, "desintegrazioa" ekarriko lukeela, gure erkidegoak foru araubidearen kariatzak dituen eskumeneren zati bat uztea. Hori horrela, Gobernuaren proiektua onartzea ageriko kontraforua izanen litzateke eta gurea, berriz, desleialtasuneko hutsegite larria.

Baina Nafarroako Gobernuak nahi duena baldin bada eskumen hori Estatuaren eta estatuko Gizarte Segurantzaren eskuetan uztea, gure iradokizuna da hala egin dezan LORAFNaren 71. artikulua hura aldatzeko ezartzen dituen baldintzak betetz. Aurrea hartu, Nafarroako Kontseilua-ren aginduzko txostena eskatu, gobernuarekiko negoziatzeko eta legegintzako tramitera aurkeztu, argi eta garbi, amarririk gabe.

Azaldutakoa dela eta, bidezkoa da, gure iritziz, Gobernuari proiektua itzultzea, lehenbailehen egin dezan beste bat, Foruaren Hobetzeak ezagutzen dituen eskumen historiko erabatekoak errespetatzen dituen.

II. NAFARROAKO GOBERNUAK OINARRITZAT HARTZEN DITUEN AZTERLAN EKONOMIKOAK EZ DIRA ASKI ETA ELKARREN AURKA DOAZ

Nafarroako Gobernuaren pasiboei buruzko egungo lege proiektuak erantsirik duen justifikazio ekonomikoa eskasia eta akats larriez josia egoteaz gain, ez du oinarri nahikorik, eta hala adierazi du Kontuen Ganbarak Parlamentu honek eskatu zion txostenean. Bestalde, Nafarroako Gobernuak abiapuntuzat hartzen dituen azterlan ekonomikoak gaizki eginak baldin badaude eta ez badira aski, deskribatu dugun egoera benetan zentzuga-bea dela ohartuko gara.

Izan ere, Kontuen Ganbarak txosten horretan dioenez, Nafarroako Gobernuak hainbat azterlan, bere zerbitzuak eginak, aurkeztu zizkion pasiboei buruzko proiektuaren kostua zehatz zezan, eta azterlan horiek izan dira lana burutzeko funtsezko oinarria. Beste alde batetik, Ganbarak, kontratatutako aktuarioen bidez azterlan horietako hipotesi eta formulen egiaztapena eta arrazoizkotasuna alderatu egin ditu, baina azterlanak egiteko mekanikaren egiaztapenik egin gabe. Era berean, agerian uzten du Nafarroako Gobernuak ez duela azterlan aktuarialik eskatu kontuan hartu dituen alternatiben kostuak zehazteko, Nafarroako Gobernuak berak 1997ko txosteneko 62. orrialdean zioenaren kontra.

Kontuen Ganbarak eginiko txostenak ere mugak ditu, berak aitortzen duenez, IV.2 idatzatian aipatuta. Hauexek azpimarratu behar ditugu:

- Nafarroako Gobernuaren azterlanak prestatzeko mekanika egiaztatu ez izana; hori dela eta, fiskalizazio erakundearen "lan nagusia bertan aplikatutako hipotesiak eta formulak aztertzea izan da".

- Kostuak hain epe luzerako –15 urte eta gehiago– eta egungo baldintza sozio-ekonomikotan zenbatestek berarekin dakar zalantza eta subjektibotasun maila handia erabilitako aldagaiek eta hipotesiek aurrerago izanen duten portaerari dagokionez, eta horrek eragina izan dezake etorkizuneko zenbatespen edo proiektzio horien ziurtasunean, zenbatekoak nabarmen aldatzeraino."

- "...sistemari atxikitzea borondatezkoa izateak... are zailagoa bihurtzen du kostuen zenbatespenen prestaketa, ezinezkoa baita a priori zehaztea, ezta proiektzio fidagarrien bitartez ere, atxikiko diren funtzionarioen kopurua..."

- "Formula alternatiboen azterketari dagokionez... kostua ez da aztertu... hura taxutu eta

zehazteko behar diren oinarritzko eta ezinbesteko ildoak, hala nola, bermaturiko pentsioa, kotizazio oinarriak eta finantziazio sistema, ageri ez direlako."

Ganbarak, aktuario profesionalen bitartez alderatu baititu azterlanak egiteko erabili diren hipotesiak, txostenean azaltzen du "Nafarroako Gobernuak azterlanetan egindako kostuen konparaketa orokorra ..." (montepioen –egungoa eta foru lege proiektua– eta Gizarte Segurantzaren prestazioen kostua), "...ez da erabat homogeenoa ez eta zuzenean alderatzeko modukoa...", Gobernuak aintzat hartutako hipotesiek eragiten duten zalantza dela eta; aurrerago hauxe dio: "Horrexegatik, gure ustez azterlan hauek hipotesi desberdinak kontuan hartzen dituzten beste batzuekin osatu beharko lirakeke, Parlamentuaren esku ahalik eta informazio gehien jartzeko Foru Ogasunak aurrean izan litzakeen eszenatokiei buruz."

Baina informazio osagarriak, Nafarroako Gobernuak martxoaren 23an aurkeztutakoak, ez dio erantzuten Kontuen Ganbarak eskatutakoari, ez baitu hipotesi berrietan oinarritutako azterlan orokor berririk egiten kostuaren gainean, baizik eta banan-banan aldatu hipotesiak, gainerakoa aldatu gabe eta beraz, hipotesi guztiak aldatzeak ekarriko lukeen ondorioa jakiterik ez dago.

Kontuan hartu beharra dago, gainera, Gobernuak, azterlan horietan oinarriturik esaten diola Parlamentuari, bere lege proiektuan, Gizarte Segurantzaren sartzearen kostua montepio eguneratuarena baino % 9,3 handiagoa izanen litzatekeela. Beraz, Gizarte Segurantzaren sartzearak 146.269.000.000 pezetako kostua izanen luke eta montepio eguneratuak 133.823.400.000 pezetakoa, foru lege proiektuari erantsirik memoriaren arabera, eta horrek justifikatzen du Gobernuak konponbide hau hautatzea, merkeena delakoan. Halere, Gobernuak, azterlan horietan oinarriturik, Kontuen Ganbarari esaten dio Gizarte Segurantzaren sartzearak 91.629.000.000 pezetako kostua duela, hau da, montepio eguneratuak baino askoz txikiagoa. Alegia, Nafarroako Gobernuak informazio desberdina ematen dio Nafarroako Parlamentuari eta Kontuen Ganbarari.

Bietako zein ote da egia? Gaia garrantzi handikoa da, erabaki behar baita zein den konponbiderik merkeena foru ogasunarentzat, eta kontua da ez dugula jakiterik eta, horren ondorioz, ezin dugu balorazio ekonomikorik egin. Eta arrazoa da arlo horretako profesionalek eginiko azterlan aktuarialak falta direla, ulertezina bada ere. Nafarroako Gobernuaren azterlan ekonomiko horien gainean guk egiten dugun ondorioa da ez direla batere fidagarriak, ondorioen noraeza ikusirik.

Beste alde batetik, Kontuen Ganbararen txostenak kostuen gaineko aukerak eskaintzen ditu, baina horien fidagarritasuna ere zalantzan daude, erakundeak berak aitortzen dituen mugak direla eta, ondorioak ere erlatibizatu egiten baititu: "Formula alternatiboen azterketaren inguruan, ganbera honen lana arau esparru indarduna eta bestelako sistemak horretan nola txertatu aztertzea mugatu da, baina ez da kalkulatu horiek izanen luketen kostua hura taxutu eta zehazteko behar diren oinarriko eta ezinbesteko ildoak, hala nola, bermaturiko pentsioa, kotizazio oinarriak eta finantziazio sistema, ageri ez direlako." (15. orr.)

Horrexegatik nabarmendu behar da Kontuen Ganbarak egiten dituen ondorioetako baten balioa, laburbiltzen baitu informazio egokiaren falta: "Horrenbestez, gure iritzia da Gobernuak Parlamentura igorri beharko lukeela, ahal den eperik laburrenean, bestelako hipotesiak aintzat hartzen dituzten beste azterlan batzuk, informazio osatuagoa eman ahal izateko Foru Ogasunak aurrean izan litzakeen eszenatokiei buruz, eta horrela laguntzeko Parlamentuko eztabaida." (28. orr.)

Ezinbestekoa iruditzen zaigu beharrezkotzat jotzen ditugun azterlanak kalkulu aktuarialetan adituak diren profesionalak egitea. Hauexek dira gure ustez egin beharrekoak:

- Pasiboen egungo sistema aplikatzen heldu diren etorkizuneko konpromisoek, Gobernuak egungo montepioari atxikitako jarduneko funtzionarioekin hartutakoek, duten kostu aktuariala.

- Funtzionario horiek Gizarte Segurantzaren sarztearen kostu aktuariala.

- Montepioa egungo mailetara eta lansarietara egokitzearen kostu aktuariala.

- Eguneratze horren beraren kostu aktuariala, banaketaren kudeaketaren ereduaren ordezkariak oinarritutako ereduaren ezarritasun; horren arabera, ordaindutako pentsioak berdina badira, nahitaez merkeagoa izan behar dira, pentsio horiek ordaintzeko behar den kapitalari gehitzen zaizkion korrituak sortzen dituelako, eta horrela kostu osoa askoz txikiago izatea lortzen da.

Horrexegatik, CDN Parlamentuko taldeak Bilzar honi proposatuko dio Nafarroako Gobernuari eskatzea lehenbailehen aurkez dezan lege proiektu berri bat, Foruaren Hobetzean ageri den funtzio publikoaren arloko eskumen erabatekoa betetz, behar diren azterlan aktuarial fidagarriak erantsirik izanen dituen.

Hori dela eta, Nafarroako Demokraten Elkar-gunea-CDN Parlamentuko Taldeak Nafarroako

Parlamentuko Osoko Bilkurari proposatzen dio Nafarroako administrazio publikoetako montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboei buruzko Foru lege proiektua Gobernuari itzultzeko erabakia har dezan.

2. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, osoko zuzenketa aurkeztu du, Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboei buruzko Foru Lege proiektua itzulia izan dadin.

2000ko apirilaren 4an, Negoziaketa Mahai Nagusian akordio bat sinatu zuten sindikatu guztiek, eta han jasotako edukiak dira Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboei buruzko Foru Lege proiekturako oinarria.

Akordio horren helburua zen 4.800 pertsona inguru kaltetzen dituen egoera bidegabeari –ez baitago berdintasunik– amaiera ematea. Langileen ordezkariak zuten xede zintzoa hori izaki, azkenean Nafarroako Gobernuarekin lortutako akordioaren funtsezko edukiak, egoera horren zenbait alderdi konpontzen baditu ere, ez dira egokiak interes publiko orokorrari eta Foru Ogasunari begira.

Proiektuak, Nafarroako administrazio publikoetan lan egiten duten langileen pasiboen araubidea inondik inora ez batzeaz gain, beste pasibo-sistema bat sortzen du. Lehen beste zazpi sistema ere bazirenez, kontua argitu bainoago, pasibo-sistemaren errealitate nahasia are nahasiagoa bihurtzen du.

Nafarroako Gobernuak berak emaniko zenbakiei erreparatzen badiegu, bai eta Kontuen Ganbarak eginiko txostenari ere, nabarmena da egokiena dela, bai foruaren ikuspegitik, bai lan-justiziarik, bai eta Nafarroarentzako bidegarritasun ekonomikoaren ikuspegitik ere, 4.800 pertsona horiek eta administrazio publikoetako gainerako langileak kutxa bakarreko gizarte-aurreikuspen sistema bakarrean sartzea, baldintza erabat berdinetan eta sistemaren kudeaketa Nafarroan bertan eginez.

Beraz, gure ustez arazo honi ematen zaion konponbidea edozein dela ere, helburua baldin bada eskumeneren erabilpen beregaina planteatzea eta konponbidea behin betikoa izatea, nahitaez

sartu beharko dira Nafarroako administrazio publikoetako langile guztiak kutxa bakarreko sistema batean, baldintza erabat berdinetan eta sistemaren kudeaketa foru administrazioan bertan eginez.

Horiek guztiak horrela, hizpide dugun foru lege proiektua baztertu ondoren, uste dugu Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat igorri beharko lukeela Nafarroako Parlamentura eta, horren bidez, Nafarroako administrazio publikoetako langile guztientzat kutxa bakarreko sistema bat, Nafarroan bertan kudeatua, ezarri beharko lukeela.

Horrenbestez, gure talde parlamentarioak osoko zuzenketa hau aurkeztu du, foru lege proiektua itzulia izan dadin.

3. ZUZENKETA

JOSÉ MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoaren babesean, osoko zuzenketa aurkeztu du Parlamentuko Mahaian Nafarroako Administrazio Publikoen Montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboari buruzko Foru Lege proiektuari, Gobernuari itzul dakion.

Ongi dakigu zein garrantzitsua den gai hau, bai eta gainerako funtzionarioek daukatena aldean Montepioetara bildutako funtzionarioen egoera zein txarra den ere. Biltzar honek behin eta berriz premiatu du Nafarroako Gobernuak arazoari konponbidea eman diezaion, funtzionario horiek Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartuz. Izan ere, hala jaso zen 1999ko azaroan Nafarroako Parlamentuak onetsitako azken erabakian, non Nafarroako Gobernuak premiatu baitzuen behar zen hitzarmena burutu zezan Gizarte Segurantzarekin funtzionarioak araubide orokorrean biltzeko.

Gobernuak orain aurkeztu duen proiektuak erabaki hori ez betetzeaz gainera, Nafarroako funtzionario publikoen araubideen kopurua gutxitu eta haiek antolatu partez, ugaritu egin ditu.

Bestalde, Kontuen Ganbarak eginiko azterlan jarraituz, Gobernuak proposaturiko legearen aplikazioak % 46 igoko luke foru gobernua ordaindu beharreko kostua, baina ez zen halakorik gertatuko Montepioetako funtzionarioak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartuz

gero. Hori guztia proiektuaren bideragarritasun ekonomikoan eragin larria izan dezaketen beste gai batzuk kontuan hartu gabe.

Izan ere, egungo lege proiektuak aurrera jarraituz gero, etorkizuneko gastu igoerak ekarriko lukeen arrisku guztiek –esate baterako, interes teknikoaren igoera edo bizi-itxaropenaren luza-tzea– areago eraginen dute Gizarte Segurantzaren sartzearen alde egiten bada.

Proiektu honen indarrez, gerta daiteke funtzionarioen kolektibo guztiak ez neurtzea neurri bakar batekin. Hori dela eta, gure ustez Nafarroako Gobernuak premiatu behar da sindikatuarekin eta Gizarte Segurantzarekin negoziatzea dezan Montepioetako funtzionarioak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sar daitezela.

Arrazoi horiek eta beste batzuk direla medio, justifikaturik dago Gobernuari foru lege proiektu hau itzultzea. Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari ondoko erabakia har dezan proposatzen diogu:

Nafarroako Gobernuari itzultzea Nafarroako Administrazio Publikoen Montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboari buruzko Foru Lege proiektua.

4. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko Eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, osoko zuzenketa aurkeztu dio Nafarroako Administrazio Publikoen Montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboari buruzko Foru Lege proiektuari; hona arrazoiak, besteak beste:

Jatorri historiko, sozial, ekonomiko eta ideologikoko arrazoiak daude lege proiektu honetarako hobeki pentsatutako formula baten bila hasteko.

Egun ezagutzen ditugun azterlan aktuariariek eta Kontuen Ganbararen txostenak argi erakusten dute sistemak ez duela oinarri finkorik eta konponbide egoki eta bideragarri bat bilatu beharra dagoela: proiektu hau ez da konponbidea. Gai honi buruzko negoziatioetan erabili diren irizpide sindikal eta estamentalak aldatu behar dira. Lege proiektua eta aurreikusten duen kotizazio sistema konponbiderik txarrena dira Administrazioarentzako eta Nafarroarentzako. Orain garesti aterako dela esaten duguna, zenbat kostatuko du aurreantzean?

Eragozpen ekonomikoei dagokienez, Kontuen Ganbararen 2001eko otsailaren 16ko txostena aztertu behar da, eta behar diren argipenak eskatu behar dira fiskalizazio organo horrek emaniko aholkuak alde batera utzi baino lehen; izan ere, hartatik ondoriozta daiteke arrazoi ekonomikoak ez datozela bat Gobernuak gaur arte eman dituenekin.

Arrazoi horiek eta beste batzuk direla eta, lege proiektua Gobernuari itzultzea eskatzen da, eta Nafarroako Parlamentuak onetsitako mozioei kasu egin diezaien, Nafarroako Gobernuak Gizarte Segurantzarekin behar den hitzarmena burutu dezan montepioetako funtzionarioak Gizarte Segurantzaren araubidean sartzeko.

5. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Administrazio Publikoen Montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutakoa.

Zioen azalpena

IUN/NEBen iritziz beharrezkoa eta presakoa da montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboak eguneratzea, haien pensioetan gertatu den desfasea zuzendu ahal izateko; izan ere, Gizarte Segurantzaren sistemara bildutakoek baino pensio baxuagoak jasotzea egokituko baitzaie haien. Hartara, amaiera emanen zaio 1992an hasitako prozesuari, hain zuzen ere Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioak gizarte eta osasun babesaren arloan maila berdinean jartzeko hasitako prozesuari, Nafarroako Administrazio Publiko Montepioetara bildutako funtzionarioak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean bilduz; hartara bukaera eman behar zaio funtzionario publiko batzuk eta besteak eta Nafarroako gainerako herritarrak neurri bakar batekin ez neurtzeari.

Nafarroa Estatuko erkidego bakarra da prozesu hori bukatu ez duena, 1992 eta geroko legeaginduak gorabehera. Besteak beste, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriak agindua ematen zion Nafarroako Gobernuari behar ziren jarduketak eta kudeaketak egin zitzaizkion Nafarroako udal Montepioetako sistemako langileak Gizarte Segurantzaren sistemara sartzeko; halaber, Estatuko Aurrekontu Orokorreari buruzko abenduaren 30eko 50/1983 Legeak bigarren xedapen gehiga-

rian baimena ematen dio gobernuari sei hilabete epean Foru Komunitateko Administrazio langileak eta Nafarroako toki entitateetakoak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartzeko.

Ezin dugu ezikusiarrena egin ez konponbide zain dagoen errealitate horrekin, ez Estatuan eta Foru Komunitatean ibilitako bidearekin, funtzionario publikoak Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartuz. Ezin dugu alde batera utzi, ezta ere, Nafarroako Parlamentuaren borondatea, azaroaren 24ko Osoko Bilkuraren erabakian adierazitakoa; erabaki haren bitartez, Nafarroako Gobernuak premiatu zuen Estatuko Gobernuarekin akordio bat egin eta Foru Komunitateko eta Nafarroako toki entitateetako funtzionarioak Gizarte Segurantzaren sistemara sartzeko prozesua burutu zezan. Gure ustez, 5.000 funtzionario horiek jada Gizarte Segurantzaren dauden Nafarroako administrazio 10.000 funtzionarioekin batera sartzeko ezin da planteatu Gizarte Segurantzaren sistemak daukan elkargune izpirituz landara, izpiritu hori izan baita aurreko jarduketak gidatu dituen, hain zuzen ere onura berak emateko kolektibo sozial guztiei.

Gobernuak igorritako proiektua lehen aipaturiko bidetik atera da, eta pasiboaren sistema itxi eta eskusibo bat proposatzen du desagertzera doazen Montepioetako funtzionarioen kolektiboarentzat, Nafarroako Montepioetako eskubide pasiboen aurreko sistematik datozen berezitasun batzuk sartuz. Gobernuak eginiko proiektuak aurrekontuetan izanen duen eraginak eta Nafarroako herritarrengan izanen duen eragin sozialak beharrezko egiten du proiektuaren tramitazioan sorturiko zalantza batzuk argitzea. Hori dela eta, 2000ko urrian txosten bat eskatu zitzaion Nafarroako Kontuen Ganbarari Foru Ogasunarentzat pasiboaren sistemaren aldaketak ekarriko lituzkeen ondorio ekonomikoei buruz, betiere balizko hiru kasutan: egungo egoera mantentzea, Gobernuak proposaturiko proiektua aplikatzea, eta funtzionario guztiak Gizarte Segurantzaren sistemara sartzeko.

Kontuen Ganbararen txostenak aurrekontuetan horrek izanen zituen ondorioak baloratu zituen, oro har. Gobernuak proiektuak 133.823 milioi pezetako kostua ekarriko luke, hain zuzen ere % 46 gehiago langileak Gizarte Segurantzaren sartzeko baino (91.629 milioi pezeta). Portzentaje orokorrak erabiliz, lege proiektuak aurrekontuetako langile-gastuen kapituluaren % 7,1eko eragina izanen luke, Gizarte Segurantzaren sartzeko hutsaren kasuan baino gehiago (% 5,6). Gobernuaren proiektuak banaketa itxiari eusten dio; hartan, funtzionario aktiboen kuotak behera egiten joanen dira, eta aurrekontu-ahalegin gero eta handiagoa

beharko da: Kontuen Ganbarak aztertutako aldiaren (2001-2036 aldia; hain zuzen ere azken urte horretan bihurtuko baita pasibo montepioetako kolektiboko azken langile aktiboa) bukaerako urteetan kontzentratuko litzateke ahaleginik handiena. Alabaina, Gizarte Segurantzaren sisteman sartzekak –langile aktiboen kotizazioei irekitako sistema ireki gisa– aurrekontu-ahalegina lehen urteetan kontzentratuko luke, eta gero behera egiten joanen zen gastua, 2036 urtera arte, urte hartan foru ogasunarentzako kostua hutsa izanzen baitzen. Alde batera utzita aldagaiek ekar ditzaketen gorabehera buruzko bestelako gogoetak, Kontuen Ganbararen ondorioa izan zen azterlanak osatu eta beste proposamen batzuk ikusi behar zirela, Parlamentuari ahal den eta informazio gehien emateko foru ogasunak topa ditzakeen aukerei buruz.

Kontuen Ganbararen gomendioari jarraituz, legearen tramitazioari buruz erabaki bat hartu baino lehen, EA/PNV eta IUN/NEB taldeek alda-gaiei buruz emaniko datuak eta Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean afiliaturik dauden funtzionarioei Gobernuako lege proiektuan aurreikusitako eskubide pasiboari buruzko sistema zabaltzea, zenbait hipotesitak abiatuta sor ditezkeen eszenatoki ezberdinak ezagutzeko. Izan ere, heriotza tasei buruzko azken taulak (1996/97 urteetakoak) aplikatuta, % 1,77 igo da proiektuaren kostua, eta guztira 136.189 milioi pezeta egiten du; halaber, nabarmen aldatu dira kostuak proiektuan erabiltzen diren hipotesiak aldatzerakoan. Gobernuak ez zuen zenbakirik eman proiektuan pasiboentzat aurreikusitako sistema Gizarte Segurantzaren afiliatuta daudenei zabaltzekoari buruz.

Erabaki arrazoizkoenak hartzeko ahaleginean, sindikatuen agerraldiak eskatu genituen, lege proiektuari buruz zuten iritzia zuzenean ezagutzeko, baita Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren agerraldia ere. CC.OO, UGT, AFAPNA, ELA eta LAB sindikatu etako ordezkariak pasiboaren araubidea konpontzeko beharra eta Nafarroako Gobernuarekin sinaturiko akordioa defendatu zuten. Sindikatu horientzat Gobernuarekin negoziatuta sinaturiko akordioa zen, eta ukituriko aldea ziren aldetik haren defentsa egiten zuten. Alabaina, ELAk zioen akordioak ez ziola konponbiderik ematen egun indarra duten sistemen artean gertatzen den bereizkeriari, eta behin betiko konponbiderik ere ez ziola ematen eskubide pasiboaren sistemari; ASIT sindikatuak ere Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioentzako foru pentsioen funts bat sortzea defendatu zuen. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak proiektuaren alde egin zuen, txarren artean onena

zelakoan, ez baitzien kosturik ekarriko toki entitatei.

IUN/NEB alderdian uste dugu ahal diren ahalegin guztiak egin direla Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboari buruzko Foru Lege proiektuaren egungo eta etorkizuneko norainokoa ponderatzeko. Hau da guk egiten dugun balorazioa:

1) Lege proiektuak ez dio inolako konponbide bateratzailerik ematen 1992an hasitako prozesuari, hala Nafarroan nola Estatuan hasitako prozesua, funtzionario publikoak Gizarte Segurantzaren Sisteman sartzekoa. Pasiboaren sistema itxi bat sortzen du, eta horrek funtzionarioen egoerari homogeneotasuna eman beharrean, jarraipena ematen dio konponbide itxi eta baztertuailean emateko akatsari, hain zuzen ere beste montepio bat sortuz.

2) Gobernuak igorritako lege proiektuaren kostua, heriotza tasei buruzko taula eguneratuta, 136.189 milioi pezetakoa da. Horrek berekin ekarri du Gobernuak bere gain hartzea aurrekontu-betebehar batzuk, 42.000 milioi gehiago suposatzen duten funtzionarioak Gizarte Segurantzaren sisteman sartzeko konponbidea baino; hartara, % 46 igo da langileak Gizarte Segurantzaren montepioetan integratzeko kostua.

3) Lege proiektuak alde batera uzten ditu lege aginduak eta Parlamentuak emanikoa, bai eta Nafarroan eta Estatuan orain arte jarraitutako bidea; hartara, gainera, zalantza handiagoa sortzen da foru ogasunean, diru kostua urrundu egin baita, halako moduan non orain hartzen ditugun erabakiek betebeharen erantzukizuna etorkizunekoan kokatzen baitute. Ez dirudi zuzena denik gaur erabakitzea bestek bihar ordain dezaten.

4) Gure iritziz, Gizarte Segurantzaren sartzearen alternatibak jarraipena emanen lioke apustu berdintzaileari, gizarte babesaren maila eta Nafarroako administrazio publikoetan funtzionarioen hirutik biren osasun prestazioak berdinduz, eta, aldi berean, haiek gainerako herritarren pare jarriko litzuke gizarte babesaren mailari dagokionean.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak ondokoa proposatzen du:

Nafarroako Gobernuari itzul dakion Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboari buruzko Foru Lege proiektua.

ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO
ZUZENKETA

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

“Hirugarren xedapen gehigarria. Terrorismo ekintzak direla-eta sortutako aparteko pentsioak.

Terrorismo ekintza baten biktima diren Nafarroako Administrazio Publikoetako montepioetako funtzionarioek eskubidea izanen dute aparteko pentsioak eskuratzeko, Gizarte Segurantzaren arloko arau indardunetan ezarritako terminoetan.

Foru Lege proiektuko xedapen gehigarrietako hirugarrenetik hamargarrenera bitartekoei hurrengo zenbakia emanen zaie.”

Zioak: Aipatu aparteko pentsioak ez dira sartu Nafarroako administrazio publikoetako montepioetan, nahiz eta gizarte aurreikuspeneko beste araubide batzuetan ere badauden, esate baterako Gizarte Segurantzaren eta Estatuko Pasiboen sisteman.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--